


ELGE-REN AURREIKUSPENAK

ELGEk beherantz zuzendu ditu bere ekonomia aurreikuspenak

Munduko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearen (ELGE) aurreikuspen berrien arabera, munduko ekonomia %3,3 haziko da 2019an eta datorren urtean hazkunde tasa zertxobait igoko da, %3,4an kokatu arte. Aurreikuspen berri horiek jaitsiera txikia ekarri diete 2018ko udazkenean argitaratu zirenei. Beherantzko zuzenketa horren oinarrian, orokorra baita 2019an eremu geografiko guztietan, Txinaren kaltebertasuna, Europako ekonomiaren ahultasuna, merkataritza eta manufaktura narriadura, eta esparru politikoan eta finantzarioan bizi den ziurgabetasun handia daude.


ELGEren aurreikuspen ekonomikoak

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2018	2019	2020	2019	2020
Munduko ekonomia	3,6	3,3	3,4	-0,2	-0,1
AEB	2,9	2,6	2,2	-0,1	+0,1
Eurogunea	1,8	1,0	1,2	-0,8	-0,4
Alemania	1,4	0,7	1,1	-0,9	-0,3
Frantzia	1,5	1,3	1,3	-0,3	-0,2
Italia	0,8	-0,2	0,5	-1,1	-0,4
Erresuma Batua	1,4	0,8	0,9	-0,6	-0,2
Kanada	1,8	1,5	2,0	-0,7	+0,1
Japonia	0,7	0,8	0,7	-0,2	=
Txina	6,6	6,2	6,0	-0,1	=
India	7,0	7,2	7,3	-0,1	-0,1
Brasil	1,1	1,9	2,4	-0,2	=

Iturria: ELGE.


AEBetako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Euroguneko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Alemaniko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Frantziako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Beheranzko zuzenketa esanguratsuenak Eurogunean gertatu dira. Hazkunde aurreikuspenen murrizketa handiena izan duten herrialdeak Alemania eta Italia izan dira. Orobat, Erresuma Batuan, Kanadan eta Turkian igurikimenak murriztu dira.

ELGEK munduko ekonomiarentzako arrisku handiak daudela baieztatu du. Ekonomia nagusi bateko narriadura bizi batek munduko jarduera kutsatuko luke, batez ere finantza merkatuetan eragina izango balu. Erakunde horrek akordio aldeaniztunak eta politika koordinatuak gomendatzen ditu arriskuak mugatzeko. Halaber, ez du ahaztu Eurogunean egiturazko erreformak ezarri behar direla produktibitatea eta ekonomia hazkunde sendoa handitzeko.

Txinako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa

